

SECCIÓN AMENA



AUSPO KONPONTZALLEA



Gizon onek baditu
 milla opizio,
 berak denetan ongi
 dakiela dio;
 bañan nik ezdet uste
 ori orla danik,
 zeren ezdan ikusten
 onik bere lanik;
 bera da arotza ta
 bera errerua,
 guardasol konpontzalle
 ta erlojerua;
 itz batez, ez da orrek
 ezdakien gauzik,
 ala, gizon azkartzat
 baitaukate guzik.
 Lengo egun batean
 deitu zuten bera,
 errementaritegi¹
 erriko batera,
 non esan zion Jošé
 nagusi angoak,
 aize guchi ematen
 zubela auspoak,

eta altzeukan lan ark
 egin zeyokenik;
 zeñei eranzun zien,
 —bai, bai, auspoa nik
 parako det ederki
 organuen gisan,
 ezdezaken moduan
 aize paltik izan;
 jachi egin bear da
 dagon tokitikan,
 or lanerako ezda
 diñ ta tokirikan;
 eta iru lagun an
 ziranak artuta
 jachi zuten, irurak
 ongi nekatuta.
 Egun ura pasarik
 gauza charra ontzen,
 sutegiko organo
 zar ura konpontzen,
 eta zerbait moldatu
 samartutakuan,
 esan zuben jartzeko
 lengoko lekuan,

(1) Taller de herrería.

eta lengo gizonak
 berriz neke aundik
 egiñik, alcha zuten
 auspo zarra andik.
 Segiran asi ziran
 saioa egiten,
 kateari tira ta
 tira eragiten,
 eta auspoa asi
 zan jotzen soñuba,
 bañan alakoa zan
 beraren doñuba;
 egiten zuben, *klin, klin,*
klan, klan, klin klin, klan, klan,
 geiago eragin da
 gero ere, *klin, klan,*
 eta soño arretaz
 denak arriturik,
 eta nagusi José
 deabruk arturik,
 esan zuben:—¿zer dauka
 auspo orrek tripan,
 soñu ori jotzeko
 orrela, *klan, klin, klan?*
 eta konpontzalleak
 pentsatzen egonik;

esan zuben ¡ai! zer da
 egin detana nik;
 malluba ta tenazak
 zaizkit or gelditu
 eta oyek *klin* ta *klan*
 ibilliko ditu;
 ia jachi zazute
 ostera goitikan,
 askatuta atera
 ditzadan ortikan;
 —¿zer? esan zion José
 ango nagusiyak,
 uste aldezu zuri
 laguntzen guziyak
 ariko zaizkitzula
 ler char egiñikan;
 ez, ez da ausporikan
 jachiko ortikan;
 eta ikusitzeaz
 nagusiya ala,
 aren argalkeriyaz
 minberatu zala,
 malluba ta tenazak
 utzirik auspoan,
 kanpora zan jornalik
 eskatu gabe joan.

RAMÓN ARTOLA.

